

» KONTZERTUA

Erromantizismo hutsa



Montserrat Auzmendi del Solar

Opera erromantiko bakar bat aukeratu behar badugu, zalantza dezente izan dezakegu, baina Verdiren *La Traviata* aipatzen badugu, ez dugu huts egingo. Alexandre Dumasen *Kamelien dama* obran oinarritutako lan distiratsu honek den-dena dauka hunkigarria suertatzeko eta sentimenduak azalera ateratzeko: benetako baina ezinezko maitasuna, zoritxarra, patua... XIX. mendeko nobelen osagai guztiak ditu publikoaren opera kuttuna izateko.

Alde musikaletik ikusita, Verdiren onena eskaintzen da obra honetan. Musika eta libretoa urtu egiten dira. Esan dezakegu opera honen musika nolabaiteko musika programatikoa dela, melodiak berak deskribatzen baititu lan honetan zehar agertzen diren sentimendu desberdinak.

Interpretazioari buruz, inpresio ona hartu nuen. Eta sorpresa izan zen niretzat. Azken urteotan munduan zehar dabilzan Errusiatik ateratako orkestra eta abeslarien taldeak, horrelako muntaia klasikoak eginez, kalitate eskasekoak dira orokorrean. Kasu honetan, Errusiako Rostov Estatuko Orkestrak, Abesbatzak eta Bakarlariek produkzio erabat klasikoa ekarri zuten, ondo zuzendua eta ondo abestua, dudarik gabe.

Esan bezala, eszenaratze hiperklasikoa ikusi genuen, zaindua. Bestalde, ondo mugitu ziren abeslariak taula-gainean, nahiz eta momentu batzuetan akats nabarmenak egin. Adibidez, Violettak, hiltorian zegoenean, publikoari bizkarrara emanez kantatu zuen eta, horren ondorioz, detailerik gabe entzun zen bere aria (pena).

Verdiren *La Traviata*

ERRUSIAKO ROSTOV
ESTATUKO ORKESTRA,
ABESBATZA ETA
BAKARLARIAK

Euskalduna Jauregia.
Martxoaren 24a.

*Errusiako Rostov Estatuko
Orkestrako bakarlariak.*

Elena Zolova sopranoak Violetta sentitua egin zuen. Hirugarren ekitaldiko *Addio del passato* aria, beste batzuen artean, zinez hunkigarria iritsi zitzaigun. Victor Mendeleev tenoreak ere momentu distiratsuak izan zituen, *De miei bollenti spiriti* arian bezala. Baina txalo guztiak eraman zituen, dudarik gabe, Valerii Khraponov baritonoa izan zen. Giorgio Germonten papera egin zuen (Alfredoren aita) eta unero seguru-seguru abestu zuen, tinbre garbi eta orekatua erakutsiz. Rostoveko orkestra, Mikhail Pabuzinen batutapean, doitasunez aritu zen, nahiz eta batzuetan ahotsak zapaldu. ■

